

Green Fashion

GIPUZKOA KLUSTERRA

GIPUZKOAKO MODA IRAUNKORREKO KLUSTERRA
CLÚSTER GUIPUZCOANO DE MODA SOSTENIBLE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Guztiok gara kate baten zati, eta bere katebegiak ekonomia zirkularrerantz bideratu behar dira.

Todos formamos parte de una cadena cuyos eslabones deben avanzar hacia la economía circular.





Gipuzkoako industria-ehunak enpresa txikiz eta ertainez osatutako ekosistema dauka. Enpresa horiek aitzindari dira moda iraunkorraren eta birziklapenaren arloetan. Horren eraginez, gurea eredu zirkular baterantz aurrera egiten jarraitzeko gaitasuna duen lurralde bihurtzen ari da. Eredu horrek kontzeptu-aldaketa bat ekarri du, non produktu baten bizitzaren amaierak hurrengo produktua fabrikatzeko balio duen.

Berrerabileran eta hondakinen prebentzioan irabazi asmorik gabeko fundazioen eta elkarteen lanarekin batera, hiritarrek kontsumo arduratsua eta adeitsua burutzeko egiten duten ahaleginek, eta kontzientziazioaren eta soziabilizazioaren sustapenak eredu ekonomiko berri honen sorrera ekarri dute. Eta agente hauetako bakoitzaren laguntzari eta konpromisoari esker, norabide horretatik eramango gaituzten bideak sustatzen eta aukeratzen jarraituko dugu.

Katalogo honek erakusten du beste moda mota bat egitea posible dela, ingurumenaren errespetuan eta iraunkortasunean oinarritutako moda. Paradigma zirkular berri baterantz joan behar duen kate baten zati garen guztion soziabilizazioan sakontzeko sortutako argitalpena.

El tejido empresarial de Gipuzkoa cuenta con un ecosistema conformado por pequeñas y medianas empresas, pioneras en materia de moda sostenible y reciclaje, que hacen de nuestro territorio un lugar con la capacidad para seguir avanzando hacia un modelo circular. Un modelo que supone un cambio de concepto en el que el final de vida de un producto sirve para fabricar el siguiente.

El esfuerzo de la ciudadanía por llevar a cabo un consumo consciente y respetuoso, el fomento de la concienciación y sociabilización, junto con la labor de fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro en la reutilización y prevención de residuos hacen posible el nacimiento de este nuevo modelo económico. Y gracias a la colaboración y el compromiso de cada uno de estos agentes continuaremos impulsando y tomando rutas de guía en esa dirección.

El presente catálogo pone sobre la mesa la realidad de que es posible realizar otro tipo de moda, basada en la sostenibilidad y el respeto medioambiental. Una publicación concebida para ahondar en la sociabilización de todos los que formamos parte de una cadena, que debe avanzar hacia un nuevo paradigma circular.

José Ignacio Asensio Bazterra

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DIPUTATUA
DIPUTADO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA / ÍNDICE

XEDEA / MISIÓN 5
CHECKLIST 6
SLOW FASHION NEXT 8

EKONOMIA ZIRKULARRA / ECONOMÍA CIRCULAR
EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA 10
SILENTO STUDIO 12

MODA
AKUKUNA 14
AMARENAK 16
ANE SAN JOSÉ 18
ASTORE 20
BASK 22
ELI-TWO 24
ERROR 26
FANNY ALONSO 28
INDI & COLD 30
INGE ZUBELDIA 32
LAVANDERA 34
LAZA CLOTHING 36
LEIRE SANTILLÁN 38
LOREAK MENDIAN 40
LUHEI 42
M.A. 44
MAIDER ALZAGA 46
MARIPURI TIJERITAS 48
MINUSSE 50
MUNDO TÓXICO 52
SANTA CLARA 54
SKFK 56
TELARISTA URBANA 58
TERNUA 60
TWIN & CHIC 62

OINETAKOAK / CALZADO
RE_ 64
ROYO BRAND 66

OSAGARRIAK / COMPLEMENTOS
EKOMODO 68
GABRIELA MUÑAGORRI 70
GIOVANNA BITTANTE 72
KANTAURI 74
KOÖL 76
LAS COSAS DE VALEN 78
SINDESPERDICIO 80
ZOCCO HANDMADE 82

I+G+b / I+D+i
AEG 84
BALAB FACTORY 86
CIKLO 88
CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA 90

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Argitaratzailea / Edita:
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
V7 / 2021

XEDEA

Gure bazkideen errealitatearen esentzia, haien bizipenak eta prospekzioa bilduz, eskualdeko ehungintza-industriak izan duen hazkundearen isla bat da katalogo hau, enpresa-mailan bere egitura gutxika irmotzen ari dela kontuan hartuta. Industria honetarako ad-hoc I+G estrategien diseinuari eta abiarazpenari estu lotutako garapena. Hala, estrategia horiek bide-orri bati jarraitzen diote, eta bide horretatik bultzatu nahi dugu sentsibilizazioa ehungintza-industriak sorrarazitako kutsadura prebenitzeko premiaren eta garrantziaren inguruan. Planetako bigarren industria kutsatzaileena da, uretara isurtzen diren toxikoen % 20aren erantzule. Horregatik, beharrezkoa da oraingo ekonomian hasitako aldaketa bultzatzea eta jarraitzea eta prozesu zirkular baterantz aurrerapausoak ematea, non gure diseinatzaileek tresna egokiak izango dituzten eskueran beren produkzioen zikloa modu jasangarri batean osatu ahal izateko.

Lan-baldintza duinak, produktu kimikorik gabeko tindagaiak, manufaktura osasungarria, material organikoak, ehunen birziklatzea; Slow Fashion edo moda jasangarriaren kontzeptuari esanahia ematen dioten balioetako batzuk, alegia. Hemen aipatzen dugun industriak, produktuaren azken estetikari ez ezik, jantzi bakoitzaren atzean dagoenari ere ematen dio lehentasuna, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, pronto moda edo fast fashion izenez ezagun den horren frankizia handien aldean. Jasangaitza dela antzematen den eredua, minidenboraldiak eskaintzen dituena, arropa erosi eta handik bost astetara baztertzeko pentsatuak.

Testuinguru horretan, garrantzi handia hartzen du paradigma berri batera aldatzeak, non erabili eta botatzearen kontzeptuaren ordez ekonomia zirkularra ezartzen den. Eredu hori zabalduta zegoen jadanik orain dela 20 urte, baina deslokalizazioa da gaur egun bere ordezkoa, eta horrek eragin du munduko fabrika gehienak Asian egotea. Hemen, gure hiriko ekonomia garatzeko eta kalitateko enplegua sortzeko aukera bat adierazten du moda jasangarriak, kontuan izanik gainera hondakinak baliabide bihurtzen eta ehun industrial nazional baten sorkuntzan laguntzen dugula horrela.

Izan ere, xede horretarako sortu genuen Moda Jasangarria Clusterra, helburu hirukoitz batekin: ingurumenaren, enpleguaren eta gure industriaren aldeko politikak babestea. Gure ustez, guri dagokigu herritarrei ematea moda jasangarriaren garrantziaz jabetzeko beharrezko tresnak eta ezagutza. Eta horrekin batera, Gipuzkoako ehungintza-industria gure eskualdeko ekonomiaren eragile bihurtzea.

MISIÓN

Esencia de la realidad de nuestros socios, sus vivencias y prospección de las mismas, el presente catálogo es un reflejo del crecimiento de una industria textil regional, que poco a poco va afianzando su estructura a nivel empresarial. Un desarrollo estrechamente vinculado al diseño y puesta en marcha de estrategias de I+D ad-hoc para esta industria, que siguen una hoja de ruta, con la que buscamos impulsar y sensibilizar sobre la necesidad e importancia en materia de prevención de la contaminación en la industria textil. Se trata de la segunda industria más contaminante del planeta, responsable del 20% de los tóxicos que se vierten al agua. Por ello, es necesario impulsar y continuar con el cambio iniciado en la economía actual y avanzar hacia un proceso circular en el que nuestros diseñadores cuenten con las herramientas adecuadas para poder completar el ciclo de sus producciones de manera sostenible.

Condiciones de trabajo dignas, tintes exentos de químicos, manufactura saludable, materiales orgánicos, reciclaje de textiles; son algunos de los valores que dan significado al concepto de Slow Fashion o moda sostenible. Hablamos de una industria que no prioriza únicamente la estética final del producto; sino lo que hay detrás de cada prenda, cobrando cada vez más importancia en contrapartida con las grandes franquicias de la conocida pronto moda o fast fashion. Un modelo que se perfila insostenible, con minitemporadas pensadas para desechar la ropa a las cinco semanas de su compra.

Dentro de este marco, el cambio hacia un nuevo paradigma donde el concepto de usar y tirar sea reemplazado por el de economía circular, adquiere una gran relevancia. Un modelo que ya existía hace 20 años y que se ha sido sustituido por la deslocalización, propiciando que la mayoría de las fábricas en el mundo se encuentren en Asia. Esto supone una oportunidad para el desarrollo económico de nuestra ciudad y la creación de empleo de calidad, convirtiendo los residuos en recursos e impulsando la creación de un tejido industrial nacional, tan necesario para nuestra economía.

Por todo ello, concebimos el Clúster de la Moda Sostenible con una triple finalidad: apoyar políticas favorables para el medio ambiente, el fomento del empleo y de nuestro sector industrial. Entendemos que es nuestra labor proporcionar a los ciudadanos las herramientas y el conocimiento necesario para trasladar la importancia de la moda sostenible. Y con ello, convertir la industria textil guipuzcoana en un motor de la economía de nuestra región.

GIPUZKOA KLUSTERRA

Green Fashion

checklist

	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
Ingurumen-irizpideak	**14**
A. Material organikoak eta iraunkorrak eta baliabide berriztagarriak erabiltzea.	5
B. Enpresaren ingurumen-ziurtagiriak.	2
C. Ekodiseinua. Diseinua asmatua izatea ondoren desanblatu, konpost bihurtu ahal izateko, Zero waste izateko, erabilera anitzetarako…	2
D. CO_2 emisioak gutxitzeko praktikak. Itsasontziz garraiatzea, kontsumo elektrikoa gutxitzea…	1
E. Hondakinak gutxitzeko politikak eta ekonomia zirkularra: materialak berrerabiltzea eta konpontzea, jantziak birziklatzea...	2
F. Prozesu toxikoak ez erabiltzea.	1
G. Packaging iraunkorra. Berau gutxitzea.	1
Irizpide sozialak	**6**
H. Izaera soziala duten ziurtagiriak. (zeintzuk) langileak babesteari begira ekoizpenean lan-araudia eta hitzarmen kolektiboak betetzeko, eta betiere lan-baldintza duinak eta laneko segurtasuna eta osasungarritasuna errespetatzeko.	1
I. Bidezko Merkataritzako irizpideak lehengaien ekoizleentzako ordainsariak bidezkoak izateko. (Fair trade edo antzeko ekintzak).	1
J. Tokiko ekoizpena (Iberiar penintsula) guztizko bolumenaren %30 gutxienez izatea.	2
K. Solidaritatea: irabazi asmorik ez duten beste Ekimen batzuk babestea, gizartearen / ingurumenaren onurarako direnak; enpresaren irabazien zati bat beste ekimen sozial batzuk –nazionalak nahiz nazioartekoak– garatzeko bideratzea, elkarteetan parte hartzea sarea hedatzeko eta aldaketan parte izateko. Kolektibo kaltetuak integratzeko praktikak burutzea, eta genero-berdintasuna bultzatzen dutenak.	1
L. Irizpide kulturalak, ehungintzako tradizioak errespetatzea eta haien balioa nabarmentzea (brodatua, ziri-enkajea, estanpatzeko teknika tradizionalak, ehotzea…).	1

Moda iraunkorra, "moda etikoa" edo "slow fashion" ere deritzana, diseinuaren munduan garatzen ari den filosofia batean sartzen da, ingurumenaren babesa eta gizartearen erantzukizuna oinarritzat dituen sistema bat sortzea helburutzat hartuta. Joera hori progresibotzat jo behar da, eta beren ingurunea errespetatzen duten estrategia korporatiboak ekarri behar ditu berekin.

GK Green Fashion-ek gai horretan hartua duen konpromisoak Check List bat taxutzera eraman gaitu, katalogo hau osatzen duten marken zeregina indartu eta hobetzeari begira, gero eta modu ekologikoagoetarantz aurrera egiteko usten sendoak bultzatuta.

Hain zuzen ere, inklusiboagoak izateko eta iraunkortasun indize handiagoak lortzeko asmoz aztertzen ditugu firmen irizpideak, gizarteari eta ingurumenari lotutakoak. Integratzaileak edo inklusiboak, progresiboak, sistemikoak, eta azkenik, profesionalak direlako bereizten dira, azken produktuaren kalitateari, ekoizpen-prozesuaren egiazkotasunari, komertzializazioari eta jabetza intelektualaren errespetuari dagokienez.

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentutik, funtsezkotzat jotzen dugu aliantzen eta lankidetzen politika bat indartzea moda iraunkorraren agertokiko elkarteekin eta eragileekin sinergiak sortu eta norabide beretik aurrera egin ahal izateko.

También conocida como "moda ética" o "slow fashion", la moda sostenible forma parte de una creciente filosofía del mundo del diseño que busca crear un sistema apoyado en términos medioambientales y de responsabilidad social. Una tendencia que debe entenderse con carácter progresivo y, que dé lugar a estrategias corporativas respetuosas con su entorno.

El compromiso de GK Green Fashion en dicha materia, nos ha conducido al diseño de un Check List que potencie y mejore la labor de las marcas que conforman el presente catálogo en la firme convicción de avanzar hacia términos cada vez más ecológicos.

Es por ello que, en aras de ser más inclusivos y con la idea de conseguir unos mayores índices de sostenibilidad, llevamos a análisis los criterios sociales y medioambientales de las firmas. Estos se caracterizan por ser integradores o inclusivos, progresivos, sistémicos, y por último, profesionales, en cuanto a calidad del producto final, veracidad en el proceso de producción, comercialización y respeto por la propiedad intelectual.

Así, desde el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, consideramos fundamental potenciar una política de alianzas y colaboraciones con asociaciones y agentes del panorama de la moda sostenible, que nos permita generar sinergias, y avanzar en una misma dirección.

	PUNTUACIÓN MÁXIMA
Criterios medioambientales	**14**
A. Uso de materiales orgánicos, sostenibles y de recursos renovables.	5
B. Certificaciones medioambientales de la empresa.	2
C. Ecodiseño. Diseño para su posterior fácil desamblaje, compostable, Zero waste, multifuncionalidad…	2
D. Prácticas de reducción de emisiones de CO2. Transporte vía barco, reducción de consumo eléctrico…	1
E. Políticas de reducción de residuos y economía circular: reutilización y reparación de materiales, reciclado de prendas…	2
F. No uso de procesos tóxicos.	1
G. Packaging sostenible. Reducción de este.	1
Criterios sociales	**6**
H. Certificados de índole social. (cuales) para en la producción cumplir para con los trabajadores con la normativa laboral, con los convenios colectivos, y en todo caso respetar condiciones laborales dignas y seguridad y salubridad en el trabajo.	1
I. Criterios de Comercio Justo para una retribución justa para productores de materias primas. (Fair trade o acciones similares).	1
J. Producción local (Península Ibérica) en un mínimo del 30% del volumen total.	2
K. Solidaridad: apoyar otras Iniciativas sin ánimo de lucro que reviertan en beneficios sociales / medioambientales; destinar parte del beneficio empresarial al desarrollo de otras iniciativas sociales, nacionales e internacionales, participación en asociaciones para extender la red y ser parte del cambio. Llevar a cabo prácticas de integración de colectivos desfavorecidos, y que promuevan la igualdad de género.	1
L. Criterios culturales, respeto por las tradiciones textiles y puesta en valor de las mismas (bordado, encaje de bolillos, técnicas tradicionales de estampación, tejer…).	1

SLOW FASHION NEXT

"Hong Kong eta Txinako fabrikak bisitatu nituenean jakin nuen zer zen benetan moda". Inflexio-puntua izan zen hura Gema Gómezentzat, hura bere sinesmenekin eta balioekin kontraesanean zegoela ikustean. Orain, Slow Fashion Next bere proiektuaren bitartez, gogoz ari da lanean jasangarritasunaren esanahia osatzeko, zabaltzeko eta ezagutzera emateko asmoz.

Bizi zikloaren analisia, ekonomia lineal batetik zirkular batera igarotzea, eta modu masibo batean kontsumitzeak dakartzan arazoak; horiexek dira eredu horri eusten dioten funtsezko hiru kontzeptuak. Kalitate eskaseko produktuak kontsumitzen ditugu baliabide naturalak ustiatzearen kostura, eta horrexegatik, azaldu digu, itxi behar dugu zirkulua.

"Aprendí lo que realmente era la moda cuando visité las fábricas de Hong Kong y China". Éste fue el punto de inflexión para Gema Gómez que vio como aquello contradecía sus creencias y valores. Ahora pone todo su entusiasmo en la labor de formar, divulgar y comunicar lo que engloba ser sostenible a través de su proyecto Slow Fashion Next.

El análisis del ciclo de vida, el paso de una economía lineal a una circular, y el problema que supone consumir de manera masiva; son los tres conceptos fundamentales en los que se sustenta este modelo. Consumimos productos de baja calidad a costa de explotar recursos naturales, y por ello, nos explica, se debe de cerrar el círculo.







Zure ustez zein da moda jasangarriak betetzen duen zeregina ingurumena babesteko eta klima aldaketaren aurkako borrokan?
Funtsean, bigarren industria kutsagarriena da. Gainera, batere zentzurik ez duen kontsumo premia ezarri da. Jabetzen hasi beharrean gaude zer dagoen hain prezio baxuen atzetik.

Moda jasangarria tokiko modaren mundua hazi eta dinamizatzeko aukera bat izan daiteke?
Jakina, tokiko ekonomiak sortzen hastea da kontua, eta haiek sendotzea. Nahitaezkoa da materiak ekoizten hastea, eta materia horiek modu garbi batean transformatzen hastea, eta gazteen lana bultzatzea.

Zure iritziz materia berritzaileei (hondakinetatik edo birziklatzetik sortuak) eman behar zaie lehentasuna eta jatorritik erauzitako materialen kontsumoa baztertu? Zergatik?
Bai, noski, materia horiek ez dute aurreneko ekoizpen etapa hori behar. Beraz, ingurunean ditugun materiak berrerabiltzen arituko ginateke, naturako baliabideak ustiatu gabe.

Moda jasangarriak zer erronkari egin behar dio aurre etorkizunari begira gorantz doan sektore berritzaile bat izateko?
Hilabetean 10 kamiseta 5€-tan kontsumitu ditzakegula esanez engainatu gaituzte; ez dugu zertan hainbeste kontsumitu, hobeto kontsumitzea baita kontua. Erronka nagusia hauxe da, moda jasangarriak maila guztietan gehitzen duen balioa ezagutzera ematen hastea.

Nola lagundu behar dute administrazio publikoek moda jasangarria bultzatzen? Garrantzizkoa iruditzen al zaizu moda-lerro hau ikusgai jartzea kontsumo arduratsua zabaltzen hasteko?
Zalantzarik gabe, administrazio publikoek gaitasuna dute egitura horiek sortu ahal izateko, jasangarritasunaren alde apustu egiten duten enpresak prestatu, kontzientziatu eta haiei nabaritasuna emateko. Elkarrekin lortu ahal izango dugu hori.

¿Qué papel considera que la moda sostenible juega en la protección del medio ambiente y en la lucha del cambio climático?
Fundamental, se trata de la segunda industria más contaminante. Además, se ha establecido una necesidad de consumo que no tiene sentido. Debemos de empezar a ser conscientes de lo que hay detrás de unos precios tan bajos.

¿Considera que la moda sostenible puede ser una oportunidad de crecimiento y de dinamización del mundo de la moda a nivel local?
Totalmente, se trata de empezar a crear economías locales y fortalecerlas. Es fundamental empezar a producir materias, es fundamental empezar a transformar esas materias de una manera limpia e impulsar el trabajo de los jóvenes.

¿En su opinión las materias innovadoras (procedentes de residuos o reciclaje) deben priorizarse frente al consumo de materiales de nueva extracción? ¿Por qué?
Sí, efectivamente, estas materias eliminan esa primera etapa de producción. Por lo tanto, estaríamos reutilizando materias que ya están en el ambiente sin explotar los recursos de la naturaleza.

¿A qué retos debe enfrentarse la moda sostenible a futuro para ser un sector emergente e innovador?
Nos han contado la falacia de que podemos consumir 10 camisetas al mes a 5 €, no necesitamos consumir tanto, sino consumir mejor. El gran reto es empezar a transmitir el valor que aporta la moda sostenible a todos los niveles.

¿Cómo deben contribuir las administraciones públicas a la moda sostenible? ¿Cree que es importante visibilizar esta línea de moda de cara al consumo responsable?
Totalmente, las administraciones públicas tienen la capacidad de poder generar esas estructuras para formar, concienciar y dar visibilidad a las empresas que opten por la sostenibilidad. Juntos podemos conseguirlo.



SLOW FASHION NEXT



GEMA GÓMEZ
fundatzailea / fundadora

gema.gomez@slowfashionnext.com
M. 617 231 995

GUZMANIA,10
28039 MADRID
slowfashionnext.com

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

Modaren ekoizpenak, salmentak, kontsumoak eta hondakinek ondorio kaltegarriak dituzte natur inguruneetan, eta agerian uzten dute modaren industria aldatu egin behar dela. Planetako bigarren industria kutsagarriena izateak aldaketa garratz batera behartzen du, ekoizteko zein kontsumitzeko moduetan.

Testuinguru horretan, bigarren eskuko moda hautabide jasangarri bat da, beharrezkoa, eta Ekonomia Zirkularreko eredu bikaina. Gainera, Emaús Gizarte Fundazioan, jarduera honek, ekonomia solidarioaren printzipioetan oinarrituak, enplegua ematen die talde zaurituenei. Beraz, Ekonomia Zirkular eta Solidarioan lan egiten dugu.

Todos los impactos nocivos en los entornos naturales que la producción, venta, consumo y desechos de moda generan en el entorno, evidencian que la industria de la moda debe cambiar. Ser la segunda industria más contaminante del planeta obliga a un cambio drástico en la forma de producir y consumir.

En este contexto la moda de segunda mano se presenta como una alternativa sostenible, necesaria y un ejemplo perfecto de Economía Circular. Además, en Emaús Fundación Social esta actividad, basada en los principios de la economía solidaria, aporta empleo a colectivos más vulnerados. Por tanto, trabajamos en Economía Circular y Solidaria.



checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
5	2	0	1	2	1	1	1	1	2	1	0	17







Zeintzuk dira zuen erakundearen balio bereziak?
Sormena eta berrikuntza, berotasuna, moldakortasuna, kooperazioa, inplikazioa, elkartasuna eta jasangarritasuna.

Zer eman dezake zuen erakundeak moda jasangarrian, ingurumenaren babesean eta klima-aldaketaren kontrako borrokan?
Gustuko dugu sarean lan egitea, lantaldean, eta mundua elkarrekin aldatu eta hobetzeko enpresekin, instituzioekin eta erakundeekin bat egin dezakegula pentsatzea. Gauzak alde askotatik aztertzen ditugu, era positiboan soluzio irudimentsuak bilatuz. Gustuko ditugu pertsonak, baita kontatzea, zabaltzea, partekatzea eta, hartara, gizarte-oinarria sortzea ere, eta sentsibilizatzea, eraldatzeko.

Zein plan eta proiektu dituzue etorkizunera begira moda jasangarrian?
Arropa ugari berreskuratzen dugu, eta sailkatzen, berrerabiltzeko eta birziklatzeko. Geratzen denak kezkatzen gaitu. Moda poskontsumo eta postindustrialeko formula berriak ikertzen saiatzen gara.

Uste duzu moda jasangarria aukera bat izan daitekeela tokiko moda hazi eta dinamizatzeko?
Gure helburu nagusiak dira epe erdi eta laburreko sentsibilizazioan gure bigarren eskuari ospea ematea, estereotipoak haustea, proiektuak egitea eta aurreiritziak birziklatzea. Ikerketa egiten dugu, berrerabiltzea eta birziklapena areagotzeko, diseinu eta moda jasangarriko, 3D eta inprimatze digitaleko laborategietako, upcyclingeko eta bestelako eragileekin arituz.

¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra organización?
Creatividad e innovación, calidez, adaptabilidad, cooperación, implicación, solidaridad y sostenibilidad.

¿Qué puede aportar vuestra organización en la moda sostenible, protección al medio ambiente y lucha contra el cambio climático?
Nos gusta trabajar en red, en equipo y pensar que podemos unirnos a empresas, instituciones y organizaciones para cambiar y mejorar el mundo juntos. Damos muchas vueltas a las cosas, buscando en positivo soluciones imaginativas. Nos gustan las personas; contar, difundir, compartir para crear base social y sensibilizar para transformar.

¿Qué planes y proyectos a futuro tenéis en moda sostenible?
Recogemos mucha ropa, la clasificamos para su reutilización y reciclamos. Nos preocupa lo que queda. Tratamos de investigar nuevas fórmulas de aprovechamiento de moda postconsumo y postindustrial.

¿Consideras que la moda sostenible puede ser una oportunidad de crecimiento y dinamización de la moda local?
Prestigiar la segunda mano, romper estereotipos, hacer proyectos y reciclar prejuicios son nuestros principales objetivos en sensibilización a corto-medio plazo. Investigamos para aumentar la reutilización y reciclaje con agentes de diseño y moda sostenible, laboratorios 3D e impresión digital, upcycling….

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL



BEGOÑA CABALEIRO GARCÍA
komunikazio arduraduna /
responsable de comunicación

komunikazioa@emaus.com
T. 943 36 75 34

CAMINO DE MUNDAIZ, 6.
20012 - DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN
(GIPUZKOA)
emaus.com

Silento FIBERS

Silento makrame modernoa, tapizak eta bestelako dekorazio-objektuak egiteko material jasangarriak saltzen dituen ecommerce bat da.

Materialez gain, lasaitasunaren eta isiltasunaren bitartez, material jasangarriak eta birziklatuak erabiliz etxerako eta apaintzeko balio duten objektuak egiten irakasteko tutorialak diseinatzen ditu Silentok.

Kalitatezko materialak, tresnak, prestakuntza eta inspirazioa eskaintzen ditugu sortzeko eta trikotatzeko.

Silento es un ecommerce de venta de materiales sostenibles para elaboración de macramé moderno, tapices y otros objetos decorativos.

Además de los materiales, Silento diseña tutoriales para enseñar a elaborar objetos utilitarios para el hogar y decorativos con materiales sostenibles y reciclados a través de la calma y el silencio.

Ofrecemos materiales de calidad, herramientas, formación e inspiración para crear y tejer.



checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
5	0	2	1	2	1	1	1	1	5	1	1	**18**







Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Trikotatzeko sortze-esperientziaren bitartez eta hariekin, sokekin eta zuntzekin jolasean ibiliz, arretaz aztertzeko, norbere burua ezagutzeko eta kontzientziarako espazio bat sortzen laguntzeko materialak eta tresnak eskaintzen ditugu. Sormenak, lasaitasunak eta jasangarritasunak bereizten gaituzte.

Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Euren esentzia sortzailearekin konektatu nahi duten, harien artean entretenitu nahi duten, eta euren etxerako eskulan propioak eta dekorazio-elementuak egin nahi dituzten emakumeei.

Zuen markan zein material mota aurki ditzakegu?
Erabiltzen ditugun materialen artean, adibidez, Espainian produzitutako kotoi ekologikoko sokak, euskal arrazako ardien (latxa, muturbeltz, Nafarroako ardia) eta Gaztelako eta Extremadurako ardi transhumanteen artileak ditugu. Indian dagoen emakumeen kooperatiba batekin lantzen ditugun hainbat material birziklatu ere erabiltzen ditugu. Indiako emakume horiek material hauekin lan egiten dute: platano birziklatuko zuntza, sari birziklatuko zuntza eta egunkari birziklatuetako zuntzak (oso egokiak dekorazio-tapizak egiteko).

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Ecommerceren alde apustua egin dugunez, iberiar penintsula osoan saldu nahi dugu; eta, datorren urteari begira, materiala Europara ere bidaltzeko asmoa dugu.

¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Ofrecemos materiales y herramientas para ayudar a crear un espacio para la exploración, el autoconocimiento y la conciencia, a través de la experiencia creativa de tejer y jugar con hilos, cuerdas y fibras. Nos caracterizan la creatividad, la calma y la sostenibilidad.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
Mujeres que buscan conectarse con su esencia creativa, entretenerse entre hilos, realizar sus propias artesanías y elementos decorativos para su hogar.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestra marca?
Utilizamos materiales como cuerdas de algodón ecológico producido en España, lana de ovejas de razas autóctonas vascas (latxa, muturbeltz, navarra) y de ovejas trashumantes de Castilla y Extremadura. Así como una serie de materiales reciclados que trabajamos con una cooperativa de mujeres en India donde confeccionan: fibra de plátano reciclado, fibra de sari reciclado, lino reciclado y fibras de periódicos reciclados (ideal para tapices decorativos).

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
Dada nuestra apuesta por el ecommerce pretendemos enfocarnos a vender en toda la península ibérica y cara al año que viene nos gustaría ofrecer envíos a Europa también.

Silento FIBERS



DAWAMORU FERNÁNDEZ
sortzaile kidea / cofundadora
COO

silentostudio@gmail.com
M. 676 87 66 09

GABRIEL ARESTI, Nº8, 2A.
20012 - DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN
(GIPUZKOA)
silentostudio.com

Akukunaren sortzaile den Soniak badaki haur-modan ez duela guztiak balio. Hori dela eta, marka eratu zenetik, patroi onak eta diseinu landuak egiten dituzte eta jantzigintzan % 100 ekologikoak diren eta GOTS ziurtagiria duten ehunak erabiltzen dituzte. Akukunaren eskaintzak erantzuten dio seme-alaben larruazalerako arropa naturalak bilatzen dituzten, baina, era berean, kalitateko eta estilo oneko diseinuak eta akaberak nahi dituzten gurasoen eskariari. Edonola ere, arlo horretan bide luzea dago aurrera egiteko. Hori dela eta, markan jarri du arreta Akukunak, eta helburua da nazioko saltoki gehiagotara zabaltzea eta Europa Iparraldekoen gisako merkatu helduetan presentzia handiagoa lortzea; izatez, Europa Iparraldeko familia askori ez zaie burutik pasatzen ehun ekologikoekin egindakoak ez diren haur-arropak erostea.

En Akukuna, Sonia, su fundadora, sabe que en moda infantil no todo vale. Por ello, desde la creación de la marca se centran en hacer buenos patrones y diseños elaborados, con tejidos 100% ecológicos y con certificado GOTS. Una oferta que da respuesta a la demanda de padres que buscan prendas naturales para la piel de sus hijos, pero también con estilo y calidad en los diseños y acabados. Aunque como saben todavía hay mucho camino que hacer en esta materia. Por ello, en Akukuna están centrados en la marca, con el fin de tener presencia en más puntos de ventas a nivel nacional y en mercados maduros como los nórdicos, donde muchas familias ni se plantean el hecho de comprar ropa infantil que no esté elaborada con tejidos ecológicos.





checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
5	1	2	1	2	1	1	1	1	1	0	0	16







Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Akukunak sei puntu nagusi ditu oinarri: % 100 ekologikoak diren ehunak erabiltzea, arropa tokian bertan egitea, patroi onak egitea, ehunetan eta tinduetan produktu kimikorik ez duten arropak egitea, diseinu landuak izatea eta erabilera anitzeko arropa sortzea. Ehun ekologikoak eta patroigintza dira gure balio bereizgarriak.

Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Haurrentzako modan guztiak ez du balio eta guraso askok badakite hori. Gure bezeroak materiarekin arduratuta dauden gurasoak dira. Gaur egun dagoen eskaintza komertzialean aurkitzen ez diren moda eta kalitatezko patroiak bilatzen dituzte, estandar ekologikoak dituzten eta produktu kimikorik ez duten produktuak. Gainera, bertan egindako produktua baloratu eta bilatzen dute.

Zein motatako materialak aurki ditzakegu zuen arropetan?
Gure produktuetan ehunak % 100ean ekologikoak dira, GOTS zigiluarekin ziurtatutako ehunak. Halako ehunak erabiltzeak bereizten eta definitzen ditu gure produktu guztiak.

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Holandan salmenta-puntu gehiago jarri nahiko genituzke, eta horretarako azoketara joaten jarraitu nahi dut. Gainera, hor daude Frantzia, Alemania eta, oro har, iparraldeko herrialdeak, moda ekologikoarekiko duten kontzientziagatik. Merkatu helduak dira, mota honetako gaietan gu baino aurreratuagoak daude, batez ere ehungintza ekologikoari dagokionean.

¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Los puntos fuertes de Akukuna son: tejidos 100% ecológicos, elaboración local, buen patronaje, diseños elaborados y prendas versátiles. Nuestro valor diferencial es la calidad de nuestros patrones; bien hechos, en los que combinan originalidad, comodidad y armonía, lo que se refleja también en los acabados de las prendas.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
En moda infantil todo no vale y muchos padres lo saben. Nuestros clientes son padres concienciados con la materia que buscan moda, patrones de calidad y diferentes a la oferta comercial existente, con estándares ecológicos y libres de químicos. Además, valoran y buscan producto elaborado con mano local.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestras prendas?
Para el 100% de nuestros productos utilizamos tejidos que sean ecológicos, certificados con el sello GOTS. El uso de este tipo de tejidos diferencia y define a todos nuestros productos.

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
En Holanda nos gustaría ampliar puntos de venta, y para ello quiero seguir yendo a ferias. Además está Francia, Alemania, países nórdicos en general por la conciencia que tienen en moda ecológica. Son mercados maduros, más avanzados en cuestiones de este tipo, pero sobre todo en el textil ecológico.

akukuna



SONIA CEPA GARCÍA
fundatzailea / fundadora

akukuna@akukuna.com
M. 665 35 00 98

C.C. MAMUT
ASTIGARRAGAKO BIDEA, 4
20180 - OIARTZUN (GIPUZKOA)
akukuna.com

Amarenak

www.amarenak.com

Amarenak-en istorioa hasten da Oihanek, marka honen fundatzaileak eta diseinatzaileak, Kaiku bat oinordetzan hartu zuenean, bere amarena eta aurretik amonarena izan zena. Euskal arrantzaleek eta itsasgizonek erabiltzen zuten beroki tradizionala, Oihanek hainbat urtetan berekin eraman ohi zuena munduan zehar egin izan dituen bidaietan.

Hondatuta zegoenez, berri bat aurkitzen saiatu eta orduan konturatu zen nekez aurki zitekeela bat. Orduantxe bururatu zitzaion halako jantzi bat berreskuratzeko ideia, eta halaxe erabaki zuen bere jaioleku Donostiara itzultzea aspaldiko jantzi hori eta galzorian diren beste jantzi tradizional batzuk berrasmatu eta aire berri bat emateko asmotan.

Amarenak, "de la madre", en euskera, comienza su historia cuando Oihane, fundadora y diseñadora de Amarenak, heredó el Kaiku que había sido de su madre y antes de su abuela. Una prenda de abrigo tradicional que utilizaban los pescadores y marinos vascos, y que acompañó a Oihane durante muchos años en sus viajes por el mundo.

Cuando, por su deterioro, quiso hacerse con uno nuevo, constató que prácticamente había desaparecido. Cobra vida entonces la idea de recuperar su antigua chaqueta y decide regresar a su Donostia natal para reinventar y dotar de aire fresco a ésta y otras prendas tradicionales al borde del olvido.



checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
3,5	0	1,5	1	1	1	1	1	1	2	1	1	**15**

Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Jantzi bakoitzaren atzetik istorio bat dago. Jantzia gauzatzen duten pertsonak eta hari buruzko istorioa idazten jarraitzen duen erabiltzailea. Gure jantziak km0 dira (oihaletik hasi eta joskintzaraino). Hemen bertan eta artisau erara lan egiten dugunez, gure edizioak mugatuak eta zenbakituak dira, eta jantzi pertsonalizatuak ere eskaintzen ditugu. #janztekoistorioak egiten ditugu.

Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Harago begiratzen dakiten pertsonak dira, estiloa eta nortasuna dutenak, zerbait bereziren bila dabiltzanak eta horren atzetik zer dagoen jakin nahi izaten dutenak. Beren jantzien bitartez espresatzen diren pertsonak, modak gidatzen utzi gabe eta arropak denboraldi baterako baino gehiagorako ikusten dituztenak.

Zein motatako materialak aurki ditzakegu zuen arropetan?
Ehun naturalak, tokikoak batik bat. Neguan, artile birjinaz egindako oihalak (Leon), batzuetan kaxmirrekin leunduak; eta udan, liho frantsesa eta kotoia, Iparraldean ehotakoak.

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Europako hainbat hiritan egon nahi genuke, Madrilen, Bartzelonan, Londresen, Berlinen edo Parisen esaterako, eta zergatik ez, putzua zeharkatu. Gure helburua da gure #janztekoistorioak bidaian eramatea eta munduan zehar zabaltzea.









¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Detrás de cada prenda hay una historia. Personas que lo hacen posible y un usuario que continúa escribiéndola. Nuestras prendas son km0 (desde el tejido a la confección). Al trabajar de manera local y artesanal nuestras ediciones son limitadas y numeradas, y ofrecemos también prendas personalizadas. Hacemos #historiasquesellevanpuestas.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
Nos orientamos a personas que sepan mirar más allá, con estilo y personalidad, que buscan algo especial y les gusta saber qué hay tras ello. Personas que se expresan a través de sus prendas, sin dejarse llevar por las modas y que creen en la ropa para más de una temporada.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestras prendas?
Tejidos naturales, preferiblemente de procedencia local. En invierno, paños de lana virgen de oveja merina (León), a veces suavizados con cashmere; y en verano, lino francés y algodón, tejidos del País Vasco francés.

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
Nos gustaría estar presentes en ciudades europeas como Madrid, Barcelona, Londres, Berlín o París y por qué no, cruzar el charco. Nuestro objetivo es que nuestras #historiasquesellevanpuestas viajen y se expandan por el mundo.

Amarenak



OIHANE PARDO
fundatzailea / fundadora

helloiskaixo@amarenak.com
M. 644 46 30 71

TABAKALERA
ANDRE ZIGARROGILEEN PLAZA, 1 - 4.a
20012 - DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN
(GIPUZKOA)
amarenak.com

Ane San José

Ane San José diseinatzailea gelditu gabe ibili da bere bi zaletasunak, artea eta moda, konbinatzeari ekin zionetik. 2013an hasi zuen bere ibilbidea, Arte Ederretan lizentziatu ondoren, eta hiru bilduma ditu dagoeneko izen hauekin: Txuri&beltza, Olas eta Ura. Globo-itxurako bere diseinuak ikustean airean gora ibiltzea eta arintasuna datozkigu burura. Molde garbiak, minimalistak eta sinpleak dira, jantzi garaikideak eta atenporalak eratzen dituztenak. Jantzi gizatiarrak, natura hurbiltzen digutenak.

Sortze-prozesua interesatzen zaio Aneri; hark ez du zalantzarik egingo bere erara egiteari eta desegiteari ekiten dionean azken emaitza lortzen duen arte. Hasierako ideia argien gauzatzea asmotzat duen lana, alegia.

Desde que la diseñadora Ane San José combinara sus dos pasiones, el arte y la moda, no ha podido parar. Comienza su andadura en el año 2013, tras licenciarse en Bellas Artes, y ya tiene en su haber tres colecciones denominadas: Txuri&beltza, Olas y Ura. Sus diseños, en forma de globo, nos hablan de elevación y ligereza sobre la tierra. Sus cortes limpios, minimalistas y sencillos, dan forma a unas prendas contemporáneas y atemporales que nos acercan una naturaleza muy humana.

El proceso de creación es lo que le interesa a Ane, que no duda en componer y descomponer a su modo hasta llegar al trabajo final. Una labor que pretende ser la realización más clara de la idea inicial.





checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
4	0	1,5	0,9	1,9	0,9	0,9	0,9	0,9	2	0,5	0,5	**14,9**

Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Gure diseinuak ezaugarri hauengatik bereizten dira: iraunkorrak, finak, dotoreak eta unisex dira, eta zuri-beltza dute oinarri. Bestalde, Donostian ekoiztutako jantziak dira.

Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Xedetzat dugun publikoa 20 eta 45 urte bitarteko emakumeak eta gizonak dira. Beren silueta sotilki markatu nahi duten gizonez eta emakumeez ari zaigun marka da.

Zein motatako materialak aurki ditzakegu zuen arropetan?
Gure jantziak oihal iraunkorrez osatuta daude: kotoia, zetak, gasak eta abar.

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Bai nazio mailan bai nazioartean egon nahi genuke; Herbehereak egon litezke gure lehentasunen artean.







¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Nuestros diseños se caracterizan por ser sostenibles, delicados, elegantes y unisex, sobre una base de blanco y negro. Por otro lado, se trata de prendas con una producción localizada en San Sebastián.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
Nuestro público objetivo son mujeres y hombres de 20 a 45 años. La marca habla de un hombre y una mujer que quieren resaltar su silueta de forma sutil.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestras prendas?
Nuestras prendas se comprenden de telas sostenibles como algodones, sedas, gasas, etc.

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
Nos gustaría estar presentes tanto a nivel nacional como internacional, los Países Bajos podrían contar entre nuestras preferencias.

Ane San José



ANE SAN JOSÉ
moda-diseinatzailea /
diseñadora de moda
Slow Fashion Designer

M. 695 78 13 43
aloha@anesanjose.com

ANE SAN JOSÉ BRAND
PASEO DE GALICIA, 5 - 20015
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
anesanjose.com

ASTORE

Pertsona aktiboentzako marka da Astore, hirian pilak kargatzen dituzten horientzat. Edozerekin konformatzen ez diren pertsonak, euren burua egunero gainditu nahi dutenak kirol-jantzi urbanoekin, kalitate teknikoa, berrikuntza eta gure ingurunearekiko errespetua baliotzat hartuta. Euskal diseinuko marka honek bere esentziarekin konektatzen du gure jendea, berdingabe eta, aldi berean, zerbaiten parte sentiaraziz.

Astore es la marca para las personas activas que cargan sus pilas en la ciudad. Personas inconformistas que buscan superarse a sí mismas cada día con prendas deportivas urbanas de calidad técnica, innovadoras y respetuosas con nuestra tierra. Una marca de diseño vasco que conecta a nuestra gente con su esencia, haciéndoles sentir únicos y a la vez parte de algo.



checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
5	0	2	1	2	1	0	1	0	2	1	0	15

Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Marka gisa, kirola, euskal diseinua, berrikuntza eta jasangarritasuna dira gure ardatzak. Material jasangarriak eta kalitatezkoak erabiltzen ditugu, eta diseinatzen ditugun kirol-jantziak janzten errazak, erosoak eta urbanoak dira.


Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Kirola egitea edo janzteko garaian kirol estiloa gustatzen zaien gazteak. Ingurumenarekin konpromisoa hartua duten gazteak, eta kontsumo arduratsua egiten dutenak.

Zein motatako materialak aurki ditzakegu zuen arropetan?
Gure bilduma gehienak kotoi organikoz eginak daude. Gainera, Tencel erabiltzen dugu, zuntz % 100 naturala, landareetan sorburua duena, eta kotoia bezala, zuraren pulpatik lortzen dena erabat ekologikoa den fabrikazio-prozesu baten bitartez. Eta Aspe eta Asegarceko pilotari profesionalentzat diseinatutako gure kamisetetan plastikozko botilak birziklatzetik lortutako ehuna erabili dugu (PET), Urak Dakarrena proiektuaren bitartez Kantauri itsasoan bildutakoak.

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Euskadi eta Nafarroa dira gure merkatu nagusia. Gainera, online denda bat dugu maila nazionalean ere saltzeko.







¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Nuestros ejes como marca son el deporte, el diseño vasco, la innovación y la sostenibilidad. Utilizamos materiales sostenibles y de calidad, diseñando prendas deportivas fáciles de poner, cómodas y de estilo urbano.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
A jóvenes que les gusta practicar deporte o el estilo deportivo a la hora de vestir. Jóvenes comprometidos con el medio ambiente y que realizan un consumo responsable.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestras prendas?
La mayoría de nuestra colección está confeccionada con algodón orgánico. Además, utilizamos el Tencel, una fibra 100% natural, de origen vegetal, que al igual que el algodón, se obtiene a partir de la pulpa de la madera mediante un proceso de fabricación totalmente ecológico. Y en nuestras camisetas diseñadas para los pelotaris profesionales de Aspe y Asegarce hemos utilizado tejido proveniente del reciclado de botellas de plástico PET recogidas del Cantábrico a través del proyecto Urak Dakarrena.

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
Nuestro mercado principal es Euskadi y Navarra. Además, tenemos una tienda online con la que también vendemos a nivel nacional.

ASTORE



GABRIELA ZUÑIGA
marketin zuzendaria /
directora de marketing

m.zuniga@ternuagroup.com
T. 943 71 20 34

POL. IND. KATAIDE 25B, 20500
ARRASATE–MONDRAGÓN
(GIPUZKOA)
astore.es

BASK

Jantzi jasangarrien marka bat da Bask, mundua aldatzeko gogoz, bizi-estilo abenturazalea hezurmamitzen duena. Gure ingurunea errespetatzeko mezuak zabaltzea da asmoa, eta zer aldatu behar den erakustea, planetari egiten zaion kaltea murrizteko. Ekonomia zirkularra erabiltzen dute jantzigintzan, dauden elementuak berrerabiliz, eta tokikoa sustatzen dute.

Ehunki birziklatuak eta produkzioa tokiko diseinatzaileekin eta jostunekin egiten dira, ekonomia sozialaren bitartez. Ekimenak antolatzen dituzte BASK komunitatea elkartzeko eta pertsona gehiago gonbidatzeko, etorkizun jasangarriagoaren alde borroka egitea helburu hartuta.

Ezinbestekoa da erabateko aldaketa, norberarengandik hasita. Kontsumo arduratsu eta jasangarri baterantz izan behar du aldaketak.

Bask es una marca de ropa sostenible que encarna un estilo de vida aventurero con ganas de cambiar el mundo. Busca difundir mensajes de respeto por lo que nos rodea y mostrar qué hay que cambiar para que el daño al planeta disminuya. Emplean la economía circular para la confección, reutilizando elementos existentes, además de fomentar lo local.

Las telas recicladas y la producción se hacen con diseñadoras y costureras locales mediante economía social. Organizan iniciativas para juntar a la comunidad BASK e invitar a más personas para luchar por un futuro sostenible.

Se necesita un cambio radical que empieza por cada uno. Un cambio hacia un consumo responsable y sostenible.



checklist

Ingurumen-irizpideak / Criterios Medioambientales							Irizpide sozialak / Criterios sociales					GUZTIRA TOTAL
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	
5	2	0	1	2	0	1	1	0	2	1	0	15

Zein dira zuen markaren balio bereizgarriak?
Jasangarritasuna eta gardentasuna. Ehunki birziklatuak erabiltzen ditugu, hondakin gehiago sorraraztea eragozteko, eta produkzio-ziklo laburragoa eta jasangarria eratzen dugu. Tokiko produkzioarekin eta joskintzarekin, produktua eta marka garatzeko behar den guztia erakusten diogu bezeroari, hasieratik amaierara arte.

Zein publiko motari zuzenduta zaudete?
Planetaren errespetuan eta zaintzan sinesten duten pertsonak dira, baliabideak ez agortzeko eta planeta arriskuan ez jartzeko jarrerak eta ohiturak hartuak dituztenak. Eta etorkizunarekiko erantzukizuna beharrezkotzat ikusten dutenak. Komunitate abenturazalea da, naturan galdu, natura ezagutu eta maite duena.

Zein motatako materialak aurki ditzakegu zuen arropetan?
Material birziklatuak, jadanik erabiltzen ez diren jantziak eraldatzeko prozesu batean sorburua duten ehunkiak. Etengabe aritzen gara material jasangarriagoen bila, gero eta handiagoa baita ezagutza. Horrela, handiagoa da ingurumenean inpaktu positiboa sortzeko gogoa.

Gipuzkoan duzuen jarduera kontuan hartuta, zein beste merkatutan sartu nahiko zenukete?
Gainerako probintzietara eta peninsulara hedatzea da gure asmoa. Hori kudeatu ahal izan eta gero, nazioarteko merkatura salto egitea, betiere balioei eutsiz eta gure helburuetara hurbilduz; ingurumenak babesik behar izango ez duen planeta bat eraikitzea.







¿Cuáles son los valores que caracterizan vuestra marca?
Sostenibilidad y transparencia. Usamos tejidos reciclados, evitando generar más residuos y creando un ciclo de producción más corto y sostenible. Con producción y confección local, mostramos al cliente todo lo necesario para desarrollar el producto y la marca, de inicio a fin.

¿A qué tipo de público estáis orientados?
Personas que creen en el respeto y cuidado del planeta, con actitudes y costumbres para no agotar los recursos ni poner en peligro al planeta y que sienten responsabilidad por el futuro. Una comunidad aventurera que quiera perderse en la naturaleza, conocerla y amarla.

¿Qué tipo de materiales podemos encontrar en vuestras prendas?
Materiales reciclados, telas que nacen de un proceso de transformación de prendas en desuso. Buscamos continuamente materiales más sostenibles dado que el conocimiento aumenta. Con ello, las ganas de crear impacto positivo en el medio ambiente, es mayor.

Teniendo en cuenta vuestra actividad en Gipuzkoa, ¿qué otros mercados os gustaría explorar?
Queremos abrirnos a las demás provincias y península. Una vez podamos gestionarlo, lanzarnos al mercado internacional, siempre que mantengamos los valores y nos acerquemos a nuestro objetivo; construir un planeta donde el medio ambiente no necesite protección.

BASK



JON KAREAGA - UXUE DEL RÍO
